

PASAHITZAK



Gogoratuko duzun pasahitz seguru bat sortzeko errezeta:

1



haien artean loturarik ez duten 4 hitz

2



letraren bat **letra larri** bilakatu

3



letraren bat **zenbaki** bilakatu

4



karaktere bereziren bat gehitu

Adibide: champiñon-Roca-Reptil-99camiones



Pasahitz seguru batek **gutxienez 12 karaktere** izan behar ditu.

Ez errepikatu **inoiz** pasahitz bera kontu desberdinetan

Nola gogoratuko ditut hainbeste pasahitz?




Ezinezkoa izango zen guztiak gogoratzea! Horretarako **KeePassXC** bezalako **pasahitzen kudeatzaile** bat erabiltzea gomendatzen dugu. Aplikazio honek **tokian biltzen** ditu zure pasahitzak **artxibo enkriptatu** batean pasahitz nagusi batekin. Bakarrik pasahitz nagusi hau gogoratu beharko duzu besteetara sarbidea izateko.

ZER DA SEGURTASUNAREN KULTURA?

KOMUNITATEA

Komunitate batek partekatzen dituen praktikak dira, Estatuaren edo talde faxisten bigilantziaz edo errepresioaz babesteko.



ZAINTZA KOLEKTIBOA

Kontua ez da bakarrik zu babestea, baizik eta zure lagunak eta ingurua ere babestea.



TRINKOTASUNA

Ez dago banaketarik arlo pertsonalaren eta politikoaren artean: gure bizitzak politikoak dira.

Gure errutinan pentsamolde gisa txertatu behar da.



KULTURA

Kultura esaten zaio eguneroko jardunean inkontzientea eta instintiboa bihurtzen delako, ahaleginik gabekoa.



LASAITASUNA

Helburua ez da bigilantziaren paranoia handitzea, baizik eta murriztea.

Gutxieneko praktika seguruagoak aplikatzeak arriskua gutxitzen du.



AUTOGESTIOA

Mundu digitalean nola bizi garen modu kontzientean ez erabakitzeak boterea enpresa teknologiko handien eta faxisten esku uztea da.

Autokudeaketa digitalaren bila, enpresa horien domeinuetatik ihes egitea, segurtasuna eta autonomia aukeratzea da.



NOLA HASI NAITEKE SEGURTASUNAREN KULTURA ERABILTZEN?

Egin ezazu zure kolektiboaren arrisku-ereduaren aldeaz aurreko azterketa bat:

-  **Identifikatu zer babestu nahi duzun:** datu pertsonalak, dokumentuak, gailuak, komunikazioak, etb.
-  **Identifikatu norengandik babestu nahi duzun:** zure aktibismoa zentsuratu edo zapaltzeko interesa duten pertsonak, erakundeak edo Estatuko gorputzak.
-  **Identifikatu zure aurkakoen gaitasunak:** hauek baliabide ekonomiko, sozial eta teknologikoak dira.
-  **Gerta daitezken mehatxuak edo erasoak identifikatu:** adibidez, mugikor bat polizaren esku, infiltrazio polizial bat asanbladan, talde faxista baten erasoak, etab.
-  **Mehatxu batek egi bihurtzeko duen arrisku edo aukera neurtu.**
-  **Egin ezazu segurtasun digitalerako plan bat eta ezarri protokoloak.**

Info gehiago:



<https://hiperderecho.org/tecnoresistencias/resiste/#plan-seguridad-digital>